

Ikasle ohi batek euskaraz erakutsi die kantatzen haur galestarrei

2012/01/10

Bi tokitan azaldu du Iñaki Pierolak Galesen bizi izandako esperientzia: Euskadi Irratian, eta Youtuben, non testu hau idatzi baitzuen:

Kaixo guztioi! Hemengokoa ni naiz (Iñaki Piérola) Galeseko eskola bateko hurrekin abesten. Pasaden urtean 2 hilabete egon nintzen Llanfairpwll-en 3. kurtsoko praktikak egiten. Bertako jendea Euskal kulturarengan adierazten interesa zela eta 5-6 kurtsoko (9, 10 eta 11 urte, ez zekiten euskaraz egiten) hurrekin kanta bat prestatzea erabaki nuen. Abestia azken 2 astetan prestatu genuen eta azkenen egunetan, instrumentuak gehitu genituen; pianoa (irakasle bat), bateria (9 urteko haur bat) eta kitarra (ni neu). Dakizuen bezala, abesti hau Ken Zazpi-rena da eta Ilargia du izena. Esan beharra daukat bertan egon nintzen 2 hilabeteak harrigarriak izan zirela eta bertako jendea benetan jatorra iruditu zitzaidala.

